


Baionako Hiria ✨



2024 → 2030
ekologia eta
elkartasun
trantsiziorako

PROIEKTUA



Bayonne*
BAIONA-PAYS BASQUE

EDITORIALA



Klima-aldaketari buruzko Gobernu arteko Taldeak behin eta berriz errepikatzen du: premiazkoa da kolektiboki jardutea gure planeta eta gizadiaren etorkizuna mehatxatzen dituen krisiari aurre egiteko. Klima-krisiak gure gizartearen eraldaketa sistemikoa egitera behartzen gaitu.

Baionako Herriko Etxea aspaldian engaiatua da garapen iraunkorraren alde, eta dagokion erantzukizuna beteko du **2024-2030 ekologia eta elkartasun trantsiziorako Proiektuarekin**. Bidean eta aurreikusiak diren ekimenak **bide-orri kolektibo** batean batzea da proiektuaren xedea. **Udal mailakoak soilik diren 30 eskumeneko plangintza** batean oinarritzen da. Plangintza horren neurri nagusiak honako liburuxkan aurkezten dizkizugu.

Ekologia trantsiziorako Proiekturik ez daiteke izan elkartasunik gabe. Proiektuak ekintza bilakatu nahi ditu Baionako Hiriak arretaz begiratzen dituen honako gaiak: hiritarren ongi bizitzea, osasuna eta ekosistemen loratzea, ondareak eta paisaiak balioan ezartzea, ehun ekonomikoaren bizitasuna, funtsezko eskubideen zaintzea, baliabideen eta esfortzuen banaketa justuagoa, eta elkarbizitzaren kalitatea. Gainera, **gizarte zibilaren eta lurraldeko eragileen uztartzea izanen du xede**, trantsizioa maila guzietan gauza dadin.

Argi da, ekologia eta elkartasun trantsiziorako Proiektua denon afera da. Zure inplikazioa eskertuko nuke elkarrekin ekologia-trantsizio justu eta eraginkorra burutzeko.

Jean-René Etchegaray,
Baionako Auzapeza

Maire de Bayonne / Maire de Baiona



^[FR] Le Groupe Intergouvernemental d'Experts sur l'évolution du Climat (GIEC) ne cesse de le rappeler : il y a urgence à agir collectivement contre une crise qui menace notre planète et l'avenir de la civilisation humaine. La crise climatique appelle à une transformation systémique de nos sociétés.

La Ville de Bayonne, engagée de longue date en matière de développement durable, entend prendre ses responsabilités à travers la mise en œuvre du **projet de Transition Écologique et Solidaire 2024-2030**. Ce projet s'attache à rassembler les différentes initiatives en cours ou prévues en **une feuille de route collective**. Il s'appuie sur un plan de **30 actions resserrées autour de compétences strictement communales**, dont les principales mesures sont présentées dans ce livret.

Le Projet de transition écologique ne saurait exister sans être solidaire. Il entend transcrire en acte l'attention que la Ville de Bayonne porte au bien-vivre de ses habitants, à la santé et l'épanouissement de ses écosystèmes, à la mise en valeur de ses patrimoines et de ses paysages, à la vitalité de son tissu économique, au respect des droits fondamentaux, à une plus juste répartition des ressources et des efforts et à la qualité du vivre-ensemble. Il entend également jouer le **rôle de catalyseur auprès de la société civile et des acteurs du territoire** pour que la transition s'opère à tous les niveaux.

Vous l'avez compris, le Projet de transition écologique et solidaire nous concerne toutes et tous. Je compte sur votre mobilisation pour réussir ensemble une transition écologique juste et efficace.



^[GAS] Lo Grop Intergovernmental d'Experts arron l'Evolucion deu Climat (GIEC) qu'ac torna diser shens paus ni cès : qu'i a urgència a ns'i har collectivament contra ua crisi qui miàça lo nòste planeta e l'avièner de la civilizacion umana. La crisi climatica qu'apèra a ua transformacion sistemica de las nòstas societats.

La Vila de Baiona, engatjada de longa man tà çò deu desvolopament duradís, qu'enten préner las soas responsabilitats per l'aviada deu **proyècte de Transicion Ecologica e Solidària 2024-2030**. Aqueth proyècte que s'estaca a aplegar las diferentas iniciativas en cors o previstas en **ua huelha de rota colectiva**. Que s'empara sus un plan de **30 accions sarradas a l'entorn de competéncias sonque comunaus**, dont las mesuras màgers son presentadas dens aqueth liberet.

Lo Projècte de transicion ecologica ne saberé pas existir shens estar solidari. Qu'enten transcriber en acte l'atencion que la Vila de Baiona pòrta au plan-viver deus sons abitants, a la santat e l'espelida deus sons ecosistèmas, a la mesa en valor deus sons patrimònis e deus sons paisatges, a la vitalitat deu son teishut economic, au respècte deus dreus fundamentaus, a ua mei justa reparticion de las ressorsas e deus esfòrc e a la qualitat deu viver-amassa. Qu'enten egaument jogar lo **ròtle de catalisaire au près de la societât civila e deus actors deu territòri** entà que la transicion s'opère a tots los nivèus.

Que l'avetz comprés, lo Projècte de transicion ecologica e solidària que'ns pertòca a totes e totes. Que compti dab la vòsta mobilizacion entà s'i escàder amassa ua transicion ecologica justa e eficaça.



IPAR EUSKAL HERRIKO KLIMA PLANAREN HELBURU NAGUSIAK



- Energia kontsumoaren murriztea: **%16** hemendik **2030**era eta **%49 2050**erako
- Berotegi Efektuko Gasen (BEG) isurpenen murriztea: **%18** hemendik **2030**era eta **%56 2050**erako
- Energia Berriztagarrien (EB) proportzioa **%32ra** emendatu **2030**erako, eta energia beharren **%100** EB-en bidez **2050**erako
- Belardi eta oihanen karbonoa harrapatzeko gaitasuna mantentzea eta garatzea: BEG-en hondar-isurpenen **%35** hemendik **2030**era, eta **%100 2050**erako



AURKIBIDEA



HIRI
Gartxua




Natura
HIRIA



HIRI
Engaiatua





HIRI



Gartxua

energia-trantsizioa lortzeko



4 helburu estrategiko
hainbat neurriren bidez

● Hemendik 2030era argiteria publikoa %100 berrituko da LED bonbilekin

➤ klima aldaketaren murriztea BEG-en isurpenak murriztuz



> Argiteria publikoaren **%100 LED** bonbilekin berritu hemendik **2030era**

> **Sei ikastetxeren** berrikuntza edo birgaitze energetikoa hemendik **2030era**

> Urtero **1000 etxebizitza** eraberritzea sustatzea

> Merkatariak mobilizatzea, energia aurrezteko duten betebeharra errespeta dezaten

> Natura, laborantza eta oihan eremuetako zoruen artifizializazioa erdiz murriztu hemendik **2030ra**, eta **zero artifizializazio** helburua bete **2050erako**

> Antolamendu bioklimatikoaren Karta baten egitea - etxebizitzak edo laneko eraikinak egitekoak diren lekuak kontuan izan, eta eraikin horiek diseinatu energia-eraginkortasun hobea ukan dezaten eta jatorri organikoko materialak erabil ditzaten



- > Auzoetan erdiguneak eta ibilbide goxoak indartu distantzia laburren hiriari bide egiteko
- > Udal energia kontsumoaren **%80 energia berriztagarrietatik** egitea
- > **Egurretik bero sarearen hedatzea** eta Zitadela berriko hirigintza programarekin konektatzea
- Prissé auzoko bero sare berria** sortu eta auzoa konektatzea (eskolak, unibertsitate campusa, Belharra klinika, Lapurdiko Kostaldeko Ospitaleko Cam-de-Prats adarra, Prissé adinekoen egoitza, Cam-de-Prats eta Prissé-ko etxebizitzak (Habitat Sud Atlantique (HSA)) eta departamenduko artxibategia)



Prissé eskola eredugarria izanen da energia garixutasunaren aldefik: zurezko egitura izanen du eta egur berogintza sareari lotua izanen da




Gaur egun, Egurretik berotegiak Baiona Gaietako 3 400 etxebizitza eta igerilekua berotzen ditu. Eremuaren hedapena ikertzen ari gara, Zitadelako eraikuntza programa berria ere sare horri lotzeko

➤ Baliabideen kontsumoa murriztea eta ekonomia zirkularraren garapena

- > Hiriko eraikuntza, berrikuntza eta eraispen ekintzetako hondakinen ekoizpena murriztu, eta material birziklatu edo jatorri organikokoak gehiago erabili
- > **Obra Garbien karta** baten idaztea eta gauzatzea, hiria obra agintari den ekintza guztietan
- > **Jantokietako plastikozko platertxoek ordez** platertxo berrerabilgarriak edo biodegradagarriak erabili
- > Hiriko auzo zaharretan lan eginen duten ofizialeentzat material ekologikoen erabilerari buruzko formakuntzak antolatu

- > Merkataria, ofiziale eta profesionalekin lanean segitu ekonomia zirkularra gara dezaten eta Euskoa sustatu
- > **Hemendik 2025era**, hiri eta lurralde mailan **teknologia digital arduratsuen estrategia** adostu eta gauzatu
- > Sozialki eta Ekologikoki Arduratsuak diren Erosketen Sustatzeko Eskema bat diseinatzea (SEAESE)

Baionan bizikletaz egiten diren joan etorriak %1,3tik %9ra emendatu hemendik 2030era; hori ere ekologia eta elkartasun trantsiziorako Proiektuaren helburuetako bat da



Oinezkoak hirian duen lekua ere hausnartzen da

➤ Mugikortasun goxoen sustatzea

- > **Beste 2 bizikleta bide** egin (Beyris biribilgunetik Aturri bazterrera eta Polo auzotik Marracq auzora) hemendik **2027ra**
- > **Bizikletentzako 7 aterpe** ezartzea
- > **7 eskola aitzinalderen** lasaitzea seguruak eta abegitsuak izan daitezen
- > **Hemendik 2026ra**, sortzen ari diren aparkaleku guztietan **ibilgailu elektrikoek karga** guneak ezarri, eta kanpoko **5 aparkalekutan hemendik 2030era**



➤ EET-aren (Energia eta Elkartasun Trantsizioa) erronkak politika publikoen kudeaketan txertatzea

- > **Aurrekontu Berdeen izapidea** zuzendaritza eta aurrekontu erantsi guztietara hedatzea (apaltzea, egokitzea, bioaniztasunaren geriza)
- > EET formakuntza eskaini hiriko langile eta hautetsi guztiei
- > EET-ri buruzko urteroko ekitaldi bat antolatzea
- > Lurraldeko eta **Hiriko Jarduera eta Zerbitzuen Karbono bilana** egin
- > **Behatoki hiritar bat** osatu EET proiektua baloratzeko
- > Hiriko EET-ri buruzko komunikazioa birpentsatu



Urtero, ekologia eta elkartasun trantsizioaren gaiaren inguruan ekitaldi edo jardunaldi bat antolatzea



Natura HIRIA



ekologia-trantsizioa
lortzeko



4 helburu estrategiko
hainbat neurriren bidez

Freskotasun guneen eta 7 berdegune iragazkor
berrien sortzea ere ekologia eta elkartasun
trantsiziorako Proiektuaren helburuak dira




**Hiriaren erresilientzia eta egokitzeko gaitasuna indartu
klima aldaketari begira**



- > **Freskotasun guneak** garatu
- > **7** eskoletako kanpoaldea desiragazgaiztu, begetalizatu eta **antolatu** eremuen partekatze orekatuago batentzat
- > **Auzoetan 7 berdegune** sortu (iragazkorrak)
- > Zuhaitz eta hesi (tokiari egokitutako zuhaitzak) naturalen landatzea segitu
- > Antolamendu ekintzetan «**Naturan Funtsaturiko Soluzioen**» gauzatzea erraztu
- > **Pasabide berde eta urdinak** sortzen segitu fauna txikiaren joan etorriak errazteko
- > Bertako **eragileekiko lankidetzak** ekintzak garatu **eremu pribatuetan eragina ukateko**

> **Klima aldaketak** hirian, haren azpiegiturretan eta antolaketan ukan ditzakeen **ondorioetara prestatu**, hiriaren erresilientzia areagotzeko ekintza plangintza sortuz

➤ Bioaniztasuna zaindu eta garatu



- > Hiriko Bioaniztasunaren Atlasa osatu
- > Hesi, belardi eta oihantxo naturalak ezartzeko berdeguneen plan bat zehaztu
- > Eragile pribatuak lagundu hirian **natura garatzeko**

Aurrekontu Partehartzaileei esker, Hiriak ekiteko botere handiagoa ematen die hiritarrei. Hemen, Polo-Beyris-eko baratze partekatua, Aurrekontu partehartzailearen lehen urtean



Bioaniztasunaren atlasa osatzeak haren gerizan lagunduko du



➤ Ur-baliabidearen kudeaketa iraunkorra

- > Itokinak atzeman eta konpondu
- > Igerileku, teilatu eta araztegietatik ateratzen diren urak bildu eta berriz erabili




2015etik ur-iturriak ezarri ditugu ur edangarria eskura ukateko, baliabidea xahutu gabe

➤ Airea eta ingurunea kaltetzen dituzten trabak eta kutsadurak murriztu

- > Udal ibilgailu flota eta materiala elektrifikatzen segitu airearen kutsaduran eragiteko
- > Kutsadura (ura, hondakinak, zoruak, arrabotsa, airea) kontrolak azkartzeko **brigada berde bat osatu**
- > **Zakurrak ateratzeko 7 gune** sortu
- > Espezie inbasiboen kontra borrokatu (figre-eltxoak, liztor asiarrak...)
- > **Animaliak eta hiria karta** bat idatzi



Uholde kopurua, intentsitatea eta kalteak murriztea da trantsizio ekologiko eta solidarioaren Proiektuaren erronketako bat



HIRI Engaiatua

gizarte trantsizioak
laguntzeko



7 helburu estrategiko
eta zenbait neurri

Denen ongizatea bermatzeko udal osasun Plana
garatzea ekologia eta elkartasun trantsiziorako
Proiektuko ekintza bat da

Jende kalteberak lagundu ekologia-trantsizioaren bidean

- > **8 orotarako-leihatila** sortu erabiltzaileak izapideen egiten laguntzeko
- > Etxebizitzarako sarbidea errazteko, gizarte **mistotasunaren karta** aplikatu
- > Eraikuntza alorrean, hiritarren partehartzearen karta osatu, eta **etxebizitza berritzaileak garatzeko** jardunbide egokien kaiera osatu



➤ Emazte eta gizonen arteko berdintasuna sustatu

- > Emazte-gizon berdintasunaren hiriko plana osatu eta aplikatu
- > Generorik gabeko joko eta kirol eremu inklusiboak antolatu

➤ Jardunbide inklusiboekin bat egiten duen hiria

- > Karrika eta bideetako irisgarritasuna hobetzen segitu
- > Irisgarritasun Programatuaren Agenda bukatu, publikoari irekiak diren egiturak irisgarriak izan daitezzen



Festa jardunbideak hobetzeko prebentzio kanpainak indartu, publiko guztiak onartzea eta ingurumenaren gaineko eraginak murriztea



Auzoetan denentzako joko eremuak garatuz berdintasunaren kultura eraikitzen laguntzen dugu

➤ Eraldaketa kolektiboak lagundu

- > Elkarrizketa hiritarraren bide-orria osatu
- > **Elkar-aditzeak indartu**, jadanik existitzen diren tresnak bizi-araziz (Aurrekontu Partehartzailea, Auzoetako Batzordeak) eta berriak esperimendatuz
- > **Jakituteen** (baratzea, sukaldatzea, jostura, xintxuketa...) **transmisiorako sare** hiritarraren sortzea antolatu
- > **Belaunaldi gazteak** EET proiektuetan **inplikaraztea**



➤ Bertako eta kalitatezko elikadura sistema bat garatu

- > Ikastetxeetako jantokietan **gutxienez %66** mozkin biologiko zerbitzatu, eta bertako mozkinen proportzioa **%75era** eraman
- > **2026tik goiti** ikastetxeetan astean **bi bazkari begetariano** proposatu
- > Hiri elikatzailea plana diseinatu



➤ EET txertatu ekitaldi eta aisialdian, kultur eta kirol politiketan



- > **Ekitaldi eko-arduratsuen karta** osatu, indarrean ezarri, eta haren sustapena egin urtean behin ekintza berezia antolatuz
- > EET-aren sustapena egin elkarteetan, eta jokagaiak kirol eta kultur politiketan txertatu

Tokiko eta kalitatezko elikadura eskuratzeko eta erraztasunak emateak onura ugari dakartza, bai kontsumitzaileen osasunerako, bai lurzoruen osasunerako, biodibertsitaterako eta klimarako



Kultur eta kirol ekitaldiarako trantsizio ekologiko eta solidarioaren erronkak udal proiektuaren neurrien parte dira

➤ Biztanle guztien ongi-bizitza eta loratzea ahalbidetu

- > **Eremu publikoen eskema** zuzentzailea eguneratu
- > **Hiriko Osasun Plana** adostu eta ezarri
- > **Euskara Plana** osatzen bukatu eta familia liburuxka elebiduna ezarri
- > **Arte eta Historia Hiri aipamenaren** eraberritzea



2024-2030ko ekologia eta elkartasun trantsizioarako
Proiektuaren neurriak eta ekintza-fitxak hiriko
webgunean www.bayonne.fr



Bayonne*
BAIONA-PAYS BASQUE